

Semblante Andaluzen zilarrezko urtea

Semblante Andaluz elkarteko lehendakari Jose Perezek mende laurdeneko ibilbideaz eta ekintza egitarau bereziaz hitz egin du TXINTXARRI-rekin. / 5

Dantza emanaldi bikoitzaz gozatzeko aukera izango da asteburuan / 2

Belarriprest pegatinen kanpaina martxan da herriko negoziotan / 3

Lorena Zabala CD Sumendiko izotz hockey jokalaria denboraldi ona / 10

Herriko areto futbol txapelketaren lidertzarako borroka estutu da / 11



Presoen eskubideen alde saretzen

Lasarte-Oriako Sare lanean atxikimenduak lortzeko / 8-9

TXINTXARRI

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Gama altuko
2 mō betaurreko
progresibo
197€

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Gure betaurreko
guztiak bilduma
berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



Haatik dantza konpainiak 'Hormek diote On Stage' dantza ikuskizuna taularatuko dute gaur kultur etxean. HAATIK DANTZA KONPAINIA

Dantza astebururako bi emanaldi, kultur etxean

'Hormek diote On Stage' eta 'Itzal Galdua' dantza emanaldiak ikusteko aukera izango da gaur eta bihar, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Bi ikuskizunak iluntzeko zortzietan izango dira eta horiek ikustera sartu ahal izateko sarrera ordaindu beharko da

Maddi Noriega

Dantza emanaldi bikoitza izango da asteburuan, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean. Lehena, 'Hormek diote On Stage' saioaz gozatu ahal izango da gaur, iluntzeko 20:00ean.

Hormek esango luketena aitzakiatzat hartuta, Haatik dantza konpainiak elkarbizitzako zailtasun eta arazoez hausnartzeko duen dantza ikuskizuna sortu du. Emigrazioa, generoen arteko ezberdintasuna, gizartearen autoestimua eta beste hainbat gai taularatuko ditu aipatu emanaldiak.

Hormek, ez dute ahorik, ez dute mihirik, ez dute begirik, ez dute belarririk; ez dakite hitz egiten, ez dakite entzuten, baina begiratu egiten digute. Gatozenez, hormak bertan daude, eta goazenez bertan gelditzen dira.

Ikuskizun hau Donostia 2016 ekimenaren barruan aurrera eramandako 'Hormek diote' lana oinarri hartut, bertako helburuak jarraitu eta parte hartu zuten

artista ezberdinen lanak eta Haatik-ek kalerako sortutako bost pieza laburrak bilduz, antzokirako prestatutako ikuskizun bat aurkeztuko dute herriko Kultur Etxean.

Hau ikustera animatzen diren ikus-entzuleek 10 euroko sarrera ordaindu beharko dute.

Fitxa artistikoa

Aiert Beobidek zuzendutako lana da 'Hormek diote On Stage' dantza emanaldia.

Berarekin batera, Olatz Beobide aritu da zuzendaritza artistikoko lanetan, eta beste hainbat partaiderekin batera, Ibai Jimenez, Iker Sanz, Jon Arsuaga,

Irati Sorondo, Nerea Ezenarro, Anne Jauregi, Itziar Doyhartzabal, Aiert Beobide, Iñigo Etxeberria eta Nagore Zabala arituko dira dantzari lanetan.

Itzal galdua

Bigarren emanaldia, berriz, bihar eskainiko du Gero Axular Dantza Taldeak, leku eta ordu berean.

1990. urtean Karlistadak amaitutakoan, gogor jo zuen krisiak Hego Euskal Herrian. Horren ondorioz, Mauleko espartin lantegietara jo behar izan zuten Nafar askok lan bila. Etxeetan ez zuten bizitzeko nahikorik, beraz, are gutxiago ikasketak egin ahal izateko.

Baina garaikoez kontatuta, batzuek beren itzala deabruari ematen omen zioten seme-alaben ikasketak ordaintzeko behar zutenaren trukean.

Istoria hori taularatuko dute dantza konpainiako dantzariak eta hau ikusi ahal izateko, 5.50 euro ordaindu beharko dituzte herritarrek.

Bigarren Antzerki Topaketa izango da igandean, herrian

Bakarrizketak, tailerra eta haur zein helduentzako taula gaineko ikuskizunak izango dira herriko hainbat txokotan

Maddi Noriega

Goiz eta arratsalde, egun osoko antzerki egitarau erakargarriak bilduko du igandea Lasarte-Orian; Kukuka antzerki eta dantza eskolak Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean antolaturiko bigarren antzerki topaketa izango egingo da.

Goizeko 10:30ean izango da eguneko lehen saioa. Ordu horretan, familientzako antzerki tailerlean parte hartzeko aukera izango da, Sasoetako gimnasioan.

Hori amaitu eta jarraian, 'Amona Joxeparen istorioak' haurrentzako antzezlan ikusteko aukera izango da. Hau, tailerraren leku berean izango da, Sasoetako Gimnasioan, eguerdiko 12:00etan.

Goizeko bi saio horien ostean, eguerdian bazkaltzeko tartea hartu eta arratsaldean, berriz ere, aukera bat baino gehiago izango dute lasarte-oriatarrek.

Arratsaldeko lehena, Ainhoa Alberdiren 'Zapatak' bakarrizketa izango da, Ttakunenea Elkartean, 18:00ean. Lan honek, antzerkia eta zuzeneko musika uztartuko ditu, Ainhoa Alberdiren aktorearen eta Jurdana Otxoa musikariaren eskutik.

Zapatak ikuskizunaren ostean eta ordubete beranduago, 'Txiki Barrez blai' umorezko bakarrizketa saioa izango da Furia Beltza tabernan.

Antzerki topaketarekin amaitzeko, berriz, iluntzeko 20:00ean, 'Inklusioaz formatu txikian' antzerkia ikusteko tarte atsegina izango da Abend garagardotegian.

Antzerkiaren alderdi iluna

Urte osoan zehar, antzerkiaren munduan lan egiten duten aktore, gidoilari eta antzerkizaleek bizi duten egoera prekariora mahai gainean jarri nahi izan dute aurtengo topaketan. Izan ere, lan horretan dihardutenek lan eskasak baitituzte, adierazi dute.

Baliabide eta laguntza gutxi izan ohi dituzte proiektuak aurrera eramateko. Horregatik guztiagatik, aurtengoa, garrantzi berezia eman nahi izan diete antzerkiaren munduan lanean ari direnen lan baldintza prekarioei, eta horretarako, 3 euroko bonu laguntzak atera dituzte; denon artean herrian emanaldia egingo dutenei laguntza eskaini asmoz.



TXINTXARRI

Froilan Elesperi lore eskaintza

PSE-EEko alderdikideek eta ahaideek Froilan Elespe omendu zuten larunbatean Lasarte-Oriako hilerrian. Bertan izan ziren aipatu alderdiko idazkari nagusi Idoia Mendia, Iñaki Arriola, Denis Itxaso edota Jesus Eguiguren, herriko alderdikideekin batera. Bosgarren Froilan Elespe saria ere eman zioten Xabier Andonegi apaizari.



Euskara Zerbitzuko lehendakari Jon Antxordoki herriko negozioetako arduradunekin batera osteguneko agerraldian. TXINTXARRI

Belarriprest pegatinen funtzioa indarrean

Euskararen bederatzigarren Maratoiaren harira herriko negozioetan banatutako Belarriprest pegatinen funtzioari iraunkortasun bat eman asmoz, Aterpearen kanpaina baliatuko da horien eskaintza luzatzeko oraindik pegatinarik ez duten establezimenduei

Txintxarri

Euskararen Maratoirako, zenbait Belarriprest karteltxo banatu zituen Lasarte-Oriako Udalak herriko hainbat establezimenduetan. Horrela, herritarrek jakin bazekiten negozio horietara sartu eta euskaraz egin zezaketela.

Euskararen festa handia amaitu eta karteltxo haien funtzioari iraunkortasun bat eman asmoz, bi aldetatik ikus daitekeen Belarriprest pegatina batzuen eskaintza egin zitzaien establezimendu horiei eta guztira, berrogei inguruk jaso zuten aipatu pegatina hori.

Baina euskararen bederatzigarren Maratoia amaituta, gainerako establezimenduei luzatu zitzaien eskaintza bera. Horrela, aurretik kanpainaren barruan zirenekin batuta, 60 pegatina banatu ziren guztira.

Orain, Aterpea Merkatarien Elkartek martxan jarri duen bazkide berriak bildu eta datuak

aktualizatzeko kanpainaren baitan, Belarriprest pegatinei ere jarraikortasuna emango zaio.

400 establezimenduri bisita

Lasarte-Oriako Sozioekonomia sailak eta herriko merkatarien elkarte den Aterpeak, 400 establezimendu bisitatuko dituztela ere jakinarazi zuten atzoko agerraldian, eta dagoeneko lan horretan hasiak direla ere gehitu zuten.

Bisita horietan, Udalak, euskara zerbitzuaren bitartez eskuratu ditzaketen laguntzen inguruko informazioa emango diete arduradunei. Horrekin batera, 'Belarriprest' pegatina

**BELARRIPREST
PEGATINAREN
ESKANTZA JASOKO
DUTE HERRIKO
ESTABLEZIMENDUEK
DATOZEN EGUNETAN**

izateko aukera ere eskainiko zaie; horretarako, herritar euskalduna ulertzeko gai izan beharko dute establezimenduetako jendaurreko langileek.

Ekitaldiaren amaieran, Euskara Zerbitzuko lehendakari den Jon Antxordokik 'Belarriprest' pegatina duten hainbat establezimenduetako arduradunekin argazkia atera zuen.

Euskararen Maratoia gogoratu

Datorren ostiralean, martxoaren 31an Manuel Lekuona Kultur Etxean, bederatzigarren Euskararen Maratoiko bideo emanaldia eskainiko da.

Bertan, azken Maratoiko bizipenak bilduko dituen ikusentzunezkoa ikusteko aukera izango dute herritarrek.

Honekin batera, hainbat sorpresaz gozatzeko tartea izango dela ere jakinarazi dute antolatzaileek.

Emanaldia iluntzeko 19:00ean izango da.

NEURE KABUZ



JEXUX ARTETXE

ARMAGABETZEA (2)

ETAren armagabetzeaz idatzi nuen orain urtebete zutabe honetan. Orduan esan nuen gaiaren inguruko ezadostasunak ikusita, arma horiek guztiak entregatzeko oztoporik nagusia Estatuko polizia eta ETAren jarrera zirela. Bakoitzak bere jokora egokitu zitekeen bukaera nahi zuelako.

Erakunde armadunak bere gustura egin nahi zuen desarmea, bere jokabidearen goiari utsiz, eta talde garaiezina bailitzan azalduz. Badirudi, ordea, armak uzterakoan indarreko legera egokitu beharko duela. Normala. Jarri dezagun edozein guda edo gatazka, iraganekoa edo orainaldikoa, eta ziur nago ezinezkoa dela ETak egin nahi zuena egin ahal izan duenik inon aurkitzea. Hau da, aztertu genezake ia non gertatu den indarkeria nahierara erabili ondoren, biktima eta sufrimendua barra-barra zabaltu eta gero, arma bidezko estrategiak porrot eginik, armategia baliogabetzeko orduan ere bere gustu hutsera egitea lortu duenik, ordura arte arerio gisa hartu dituenen doako laguntzarekin.

Armak 'entregatu' egingo ditu ETak. Testuinguru horren baitan, 'entregatze' horrek amore ematea esan nahi du. Ez da, ordea, Madrilo ere duaren arabera egingo den errendizioa. Euskal erakundearen parte hartzeak ireki du armagabetzearen bidea. Egiteko honetan, oso garrantzizkoa deritzot euskal erakunde guztiei dagokien betekizuna. Alde batetik, indarkeriaren aurrean herri-legitimitatearen nagusitasuna adieraztea. Eta, bestetik, armagabetzea legearen azpikoa izango dela bermatzea, jasotako armak erabil daitezkeen argitzeke dauden atentatuak aztertzeko.

Hala ere, iaz esan nuen bezala, ez dut uste armak uztearekin konformatu behar dugunik. Terrorismoaren aroari bukaera eragingarria eman nahi badiogu, indarkeriaren erabilera elikatu duten diskurtsoen desarmea behar dugu, baita ere. Beraz, apirilera iragarri den desarme materiala ez da nahikoa. Desarmea erabatekoa izateko, erroko autokritika hori falta zaio oraindik, borroka armatuaren bidezkoasuna aldarrikatu zuten pentsamenduari dagokion autokritika.

Herrian gertatutako lapurretak salatu ditu Aterpea Elkartek

Lapurreta ugari gertatu dira azken boladan Lasarte-Oriako establezimendu hainbatetan, eta horiek salatu eta gaitzesteko agerraldia egin zuten Aterpea Elkarteko establezimenduetako arduradun ugari atzo.

Bertan, une askotan jasaten duten babesgabatasuneko egoera salatzearekin batera, udaltzaingoaren eta ertzaintzaren instantziei presentzia handiagoa eta herriko establezimenduen babes handiagoa eskatu nahi izan zien Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak.

Guzti honekin batera, kaltetu guztiei babesa adierazi zien.

BIDAIAK TALDEAN Lasarte-Oriatik
NOAOA BIDAIAK- EK LAGUNDUTA

BETETA

HIRIBURU BALTIKOAK
ITSAS BIDAIA

POLONIA

ABUZTUA

Azken 2 kamaroteak!

Inteerak 2017

NOAOA BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com



Joxe Mari Irazustak eta Ricardo Ortegak eskaini zuten hitzaldia. TXINTXARRI

Errausketari alternatiba dagoela nabarmenduz

Foru Aldundiak eskaintzen duen erraustegiaren aurrean, alternatiba "garbiago eta merkeagoa" dagoela azpimarratu dute Aire Garbiako kideek. Tratamendu Mekaniko Biologikoaren eta gaikako bilketaren balioa lehenetsi dute

Martin Vicioso

Hondakinen errausketaren ordez landu daitezkeen alternatibak aztertzeko asmoarekin, Aire Garbia plataformak hitzaldia eman zuen pasa den asteazkenean Manuel Lekuona kultur etxean.

Errefusaren tratamendu alternatiboa planteatu ahal izateko, gaikako bilketa egokia egitea beharrezkoa dela nabarmendu zuten plataformako kide Joxe Mari Irazustak eta Ricardo Ortegak.

Azken urteetan sortutako errefusa portzentajearen bilakaera azaldu zuten. 2011 eta 2015 artean birziklatu edota konpostatu ezin daitekeen hondakin kopurua %30 jaitsi zela, guztira 70.000 tona inguru gutxiago sortuz.

Emaitza eta praktika desberdinak

Hondakinen kudeaketa Gipuzkoako lurralde historiko osoari dagokion arazoa izanik ere, herrietan oso "praktika desberdinak" egiten direla nabarmendu zuten; horiek,

halaber, "emaitza desorekatuak" ematen dituztela.

Bi multzotan sailkatu zituzten herrietako praktikak: "eredugarriak eta tamalgarriak". Udalerrri gehienak lehenengo multzoan sartu dituzten arren, biztanleria osoaren laurdena besterik ez direla nabarmendu zuten. Errefusaren erdia baino gehiago sortzen duten Donostia, Irun, Eibar eta Orereta berriz, bigarren taldean dira. Izan ere, ez dira %70eko birziklatze tasara gerturatzen. Hauekin kokatu dute Lasarte-Oria.

Gaikako bilketa "normaltasunez" eta "bestelako zailtasun teknikorik sortu gabe" egin daiteke, hizlariak adierazi zuten. Gakoa "borondate politikoa" da.

BIHAR DONOSTIAN EGINGO DEN MANIFESTAZIOA JOATEKO DEIA LUZATU ZUTEN

Tratamendu Mekaniko Biologikoa

Egungo Foru Aldundiak proposatzen duen errauste plantaren aurrean, Tratamendu Mekaniko Biologikoa defendatzen du Aire Garbiak. "Garbiagoa eta merkeagoa" da, haien ustez. 70 milioi euroko kostua du proiektuak, gaur egun egin nahi denaren 212 milioien aurrean.

Bildutako errefusatik ahalik eta materia aprobetxagarrien gehiena bereiztea da sistemaren funtsa.

Horretarako, ezinbestekoa da gaika biltzen den hondakin kopurua nabarmen igotzea. Eskualde batzuetan -Debagoiena, Sasieta edo Tolosaldea kasu- beharrezko portzentajeetara iritsi direla nabarmendu zuten.

Atez ateko bilketa sistema balioetsi zuten, baina udalerrri batzuk beste sistema batzuekin "posible dela erakutsi" dutela azaldu zuten. Hori bai, hizlariak azpimarratu zuten, garrantzitsua da nabarmentzea "sortu daitezkeen errefusarekin 'barra librerik' ezin litekeela egon".

'KTG Sutan 2.0' jaialdiak herria girotuko du larunbat gaua


Iragan urteko arrakastari eutsi asmoz, Kuadrillategiko gazteek 'KTG Suta' festaren bigarren edizioa prestatu dute

Iñigo Gonzalez

Joan den urteko arrakastak animatuta, Kuadrillategi egitasmoko gazteek 'KTG Sutan' festaren bigarren edizioa prestatu dute.

Bihar izango da hitzordua, Lasarte-Oriako Loidibarren pilotalekuan, 20:00etan hasita, eta gaueko ordubatera arte luzatuko da festa.

Loidibarren pilotalekua kontzertu-gune inprobisatu bihurtuko da hainbat orduz. Skakeo eta Herenegun taldeak arduratuko dira giroa jartzeaz, eta antolatzaile gazteek lasarteoriatar guztiak gonbidatzen dituzte frontoira hurbildu eta ekitaldiaz gozatzera. Musikaz gain, edari eta ogitartekoak ere eskura edukiko dituzte aipatu festara gerturatzen diren herritarrek, "merke-merke".



Kontzertuak izango dira. TXINTXARRI

Bestalde, sarreren prezioak hauek izango dira: ikasle eta langabeek euro bat ordaindu beharko dute, eta helduek, berriz, hiru euro.

Sarrera-txartelarekin batera edari bat ere sartzen da prezio horietan.

Ramon Agirre gaztetxoekin

Gazte klubeko eta Kuadrillategiko kideak Ramon Agirre aktorearekin aritu ziren solasean astelehenean. Joxe Mari Agirretzek aurkeztu zuen aktore donostiarra, eta honek gaztetxoekin egindako galderak erantzun zituen. Goazen telesaila eta Agirrek bertan interpretatutako paperari buruzko kontuen inguruan aritu ziren. Izan ere, herriko gaztetxoekin artean arrakasta handiko saioa da.



TXINTXARRI

Hondarribiara hiru eguneko irteera Gazteklubak antolatuta

Apirilaren 10, 11 eta 12an aste gaztea antolatu dute irteera. Bertan parte hartzeko izen emate epea zabalik da eta apirilaren 5era arte izango da aukera. Horretarako, Ttakun Kultur Elkarte bulegoan, zein aisia@ttakun.eus helbide elektronikoko bitartez egin ahal izango da. Ttakuneko bazkideek 48 euro eta ez bazkideek 51 euro ordaindu beharko dituzte

Ikastaroa Beterri-Buruntza eskualdeko ekintzaileentzat

Jarduera bat hasi eta enpresa bideragarritasunaren proiektuaren eta negozioa abiaraztearen inguruan aholkularitza eta formazioa jaso nahi dutenei zuzenduta dago. Zortzi orduko iraupena izango du, eta Andoaingo La Salle etorbidea 6an dagoen Urigain etxean izango da, apirilaren 26 eta 27an.

"Ezin ditugu gure sustraiak inolaz galdu"

JOSE PEREZ SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Mende laurden bete du Semblante Andaluz Elkarteak eta orain arteko ibilbideaz zein ospakizun ekitaldiez hitz egin digu orain gutxi aukeratutako lehendakari berriak

Maddi Noriega Zaldua

Hogeit bost urte bete ditu Lasarte-Oriako Semblante Andaluz Elkarteak eta urte horiek guztiak ospatzeko egitarau zabala prestatu dute.

Horrekin batera, mende laurdeneko ibilbideaz ere galdetu nahi izan dio TXINTXARRIK orain gutxi aukeratu duten Jose Perez lehendakari berriari.

Nola sortu zen Semblante Andaluz?

Hona bizitzera etorri ginenean, denborak aurrera egin ahala, konturatu ginen bertako ohitura eta kultura barneratzearekin batera, gure sustraiak alde batera uzten ari ginela. Pertsonak ezin ditu bere sustraiak galdu, eta horrela, atzera begirada bat bota eta horri heldu asmoz hasi genuen Semblanteko ibilbidea. Bakoitzaren jaioterria, bizi osoan norberak eraman behar duen identitate bat da, ezin daitekeen inoiz alde batera utzi, beti ere lekuko ohitura eta kulturara egokituaz.

Zentro erregional ugari sortu ziren garai hartan.

Bai, mugimendu handia zegoen orduan Gipuzkoan, eta honen aurrean, motibazio txiki bat sortu zen Lasarte-Oriara etorri ginenon artean. Horrela, nola funtzionatzen zuten ikusteko, bisitak egiten hasi ginen zentro horietara. Horrela, 1992ko martxoaren 28an



Hogeita bost urte bete ditu Lasarte-Oriako Semblante Andaluz Elkarteak. TXINTXARRI

lehen biltzar orokor osagarriarekin jarri genuen martxan Semblante Andaluz. Hilabete lehenago, Andaluziako egunez izan zedin saiakera guztiak egin genituen, baina sortze prozesuan eman beharreko pausuak hilabete atzeratzea ekarri zuen. Hau izan ziren sorrerako urratsak. Ez genuen sekula pentsatu ez aurreikusi gaur egun daukagun indarra lortuko genuenik. Sorreratik urtebete igaro eta hainbeste hazi ginenez, lokal bat izan genezakeela pentsatu genuen. Horrela, Blas de Lezo kalean lokal

bat alokatu genuen. Garai hartan borroka ugari egin behar izan genuen, izan ere, inguruko elkarte gastronomikoetan, ez zen emakumea bazkide gisa onartzen eta guk, emakume eta gizonek leku bera merezi genuela uste genuenez, horrela egin genuen; emakumeak bazkide gisa zituen lehenengo elkarteetako bat izan ginela uste dut.

Emakumeekin batera, umeak ere oso garrantzitsuak ziren guretzako. Horiek, hegoaldeko bizitzaren berri izan behar zutelako uste genuen eta aldi berean,

Euskaldunak ere bazirela konturatu behar ziren.

Garai hartan, Ipar-Hego izena zuen euskal folkloreko talde bat ere sortu genuen, baina Erketz zegoen Lasarte-Orian eta bi urte iraun zituen talde hark.

Baina lokala hartu eta geroz eta jende gehiago gehitzen zen proiektu hartara

Zenbat bazkide ditu Semblante Andaluz elkarteak gaur egun?

Guk elkarte familiartzat dugu Semblante Andaluz Elkarteak. Beraz adibidez, bikote bateko kide bat bazkide egitera etortzen denean, biak izan litezke bazkide. Momentu honetan, 265 familia inguruk osatzen dugu Semblante Andaluz Elkartearen eta Hermandad del Rocíoaren artean.

Urte haietatik hona zein bilakaera izan du elkarteak?

Orokorrean ez gara asko aldatu. Zerbait esatearren, gaur egun egiten ditugun ekintzak modu serioago batean egiten ditugu gaur egun. Horiek behar duten kalitatea ematen saiatzen gara, eta batez ere, herriko beste elkarteekiko integrazio bilatzen dugu; aniztasuna. Hori oso garrantzitsua da guretzako eta antzematen da hori Semblante Andaluzen. Askotariko tokietako jendea daukagu elkarteak; Euskal Herri mailako, Espainiako atzerriko jendea ere badugu. Elkar ezagutzeko aukera ederra da elkarrekin gauzak egitea eta integrazioan laguntzen du horrek. **Berriz ere elkarteak lehendakari izendatu zaituzte...**

Bai. Ni Semblante Andaluz Elkarteak sortze lehendakari izan nintzen, eta 25. Urteurrenerako orain arte elkarteak izan dituen lehendakari guztiak bilera bat egin genuen eta Zuzendaritza Batzordean parte hartzeko eskaintza egin genien. Horrela,

horietako bilera batean, maitasun arrazoiak medio, nire lehendakaritza erabaki zuten.

Nola hartu zenuen zuk erabaki hori?

25 urte hauetan guztietan, askotan gehiagotan izan naiz elkarteak lehendakari. Semblantea sorreratik sei urtez izan nintzen lehendakaria eta gaur geun dugun lokala lortu arte. Gerora bi urte kanpoan egon nintzen eta beste lehendakari bat egon zen. Horrek alde egitean berriro ere bueltatu nintzen eta horrela ibili izan naiz. Semblantearen bizi urte erdian lehendakaria izan naiz, gutxi gora behera.

25. urteurreneko ospakizunen prestaketa lanekin urduri gabiltza, baina gogo handiz hartu dut berriro ere lehendakaritza. Azken asteetan, egindako hainbat ekintzetan izan dugun harrera ez genuen espero; umeen eguna, 'Blas Infante padre de la patria Andaluz' hitzaldia, zentro zibikoarekin batera egindako emakumeen eguna. Honekin batera, gaur euskal sukaldaritzari omenaldi bat egingo diogu txotx herriko batekin.

Martxoaren 28tik apirilaren 2ra 25. urteurreneko ospakizunak hasiko dituzue. Zer izango da egun horietan?

Guretzako garrantzitsuak diren taldeen eskaintza zabalaren parte hartzea nahi genuen urteurren honetan; 25 urte hauetan guztietan gurekin elkarlanean aritu diren taldeak. Egitarauaren baitan, bi talde garrantzitsu izango dira; 'Raices del Sur' eta 'Los amigos de Gines'. Lehena, apirilaren lehenean izango da eta bigarren, berriz, aurrez finkatutako Manguara taldearen ordeztuko da, apirilaren 2an. Horiekin batera, beste ekitaldi garrantzitsuak ere izango dira, apirilak 2ko 25. Urteurrena ospatzeko bazkaria, besteak beste.

Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L leihoak ordezkatzeko lanetan

Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L enpresa arduratuko da Garaikoetxea I.P.ko eta BiyaK Bat helduen egoitzako leihoak ordezkatzeko lanak egiteaz. Lan horiek egiteko 5 proposamen aurkeztu ziren, eta horiek aztertu ondoren, aipatu Iparragirre Eraikuntzak Lanak S.L. egingo ditu leihoak ordezkatzeko lanak, 351.600 euroan.

Hobekuntza gisa, baldintza agirietan eskatutakoa baino isolamendu akustiko eta termiko handiagoa eskaini du aipatu enpresak, inolako kosturik gabe.

Lan horien kostua 288.023 eurokoa da. Horretarako, %60ko diru-laguntza eskatu zaio Eusko Jaurlaritzari eta ebazpenaren zain dira oraindik.

Bestalde, Biyak Bat Jubilatuen Elkarteak leihoei dagokien lanek 63.577 euroko kostua izango dute, eta Udalak ordainduko du osoki.

2017ko San Pedro jaiak iragartzeko kartel-txapelketa

Apirilaren 10a bitarte aurkeztu ahal izango dira lanak. nahi duen orok hartu ahal izango du parte lehiaketa honetan eta nahi beste proposamen aurkeztu ahal izango dira.

Originalak beharko dute izan aurkeztutako lan horiek eta ez dute baliorik izango beste edozein lehiaketatan sarituak izan direnak. Horrez gain,

aurkeztutako lan guztiak 'San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2017' eraman beharko dute idatzita.

Egileen baimenarekin, www.lasarteoriasarean.eu webgunean jarriko dira ikusgai.

Herriarrak lan horien inguruko iritzia eman ahal izango du, eta iritzi horiek kontuan izango dira kartel irabazlea aukeratzeko orduan.

Gazteria, Festak eta Kirola Batzordeak izendatuko ditu kartel irabazlea, eta honek 600 euroko saria jasoko du.

Zabaleta Berriko etxebizitzaren emaitzak

Zabaleta Berriko etxebizitza kontzertatuen zozketaren emaitzak ezagutarazi ditu Lasarte-Oriako Udalak. Eraikitzaileak egindako Zabaleta Berriko etxebizitza kontzertatuen zozketaren emaitzak argitaratu dira udaleko web orrian.

Horiek ikusteko <http://administrazioa.lasarte-oria.eus/au/html/24/4175.shtml>.

MOTORRAK BEROTZEN

APIRILAREN 4AN IRITSIKO DA KORRIKA



Muntteri-AEK euskaltegiko ikasleek desfilez erakutsi zituzten aurtengo Korrikako jantziak. TXINTXARRI



Gure herriko hainbat eragilek eramango dute 20. Korrikaren lekukoa apirilaren 4an. TXINTXARRI



'Gure atsuek' eman zioten umore ukitua joan den ostiraleko aurkezpen ekitaldiari. TXINTXARRI



Kukuka eskolako dantzari talde batek koreografia ikusgarria taularatu zuen. TXINTXARRI



Bi aste baino gutxiago falta dira 20. Korrika gure herrira iristeko. Egun handia izango da apirilaren 4a, edo, hobe esanda, gaua, 22:45 aldera ailegatuko baita lekukoa Lasarte-Oriara. Herriko hogei eragile baino gehiagok egingo dute korrika euskararen alde. Eta, egun batzuk lehenago, martxoaren 31n, Korrika txikia egingo da: Sasoeta-Zumaburu, Landaberri eta Lasarte-Usurbil BHIko ikasleek hartuko dute parte, 11:15etik aurrera.

Joan den ostiralean aurkeztu zuten aurtengo Korrikarako egitaraua kultur etxean, Muntteri-AEK euskaltegiak antolatutako ekitaldian. Dagoeneko hasi dira apirilaren 4aren aurrekari izango diren ekintzak burutzen: igandean, esaterako, 'Bertso Korrika' emanaldiaz gozatu zuten herritarrek Furia Beltza tabernan: hor aritu ziren kantuan Ane Labaka, Alaia Martin, Miren Artetxe eta Nerea Ibarzabal. Amaia Agirrek jarri zituen gaiak, eta Ixak Arruti (gitarra) eta Gari Otamendik (biolina) girotu zuten saioa.

Gaur zortzi, Euskararen 9. Maratoiko bideoa proiektatuko dute kultur etxean, 20:00etan, eta 'Gutik Zura' dokumentala 22:00etan. Apirilaren 1ean, berriz, 'Korrika festa' ospatuko da egunean zehar. Bazkarirako tiketak Muntteri-n eta Ilargi eta Jalgi tabernetan eskuratu ahaliko dira Arratsaldean, 'Erradikalak gara' ikuskizunaz gozatu ahaliko da kultur etxean, 20:00etatik aurrera.



Alaia Martin oiartzuarra izan zen 'Bertso Korrika' saioko bertsolarietako bat. TXINTXARRI



Lepo bete zen Furia Beltza taberna igandean: 'Bertso Korrika' egin zen bertan. TXINTXARRI

"Agendaren lehen lerroetan jarri behar da presoaren gaia"

JOXE MARI AGIRRETXE ETA IXIAR ARTEAGA LASARTE-ORIAKO SAREKO KIDEAK
Bazkidetza kanpaina eta mobilizaziorako deia egin du Sare Herritarrak larriki gaixo dauden presoaren eskubideen alde

Maidar Azurmendi

Euskal Preso, iheslari eta deportatuei legez dagozkien eskubideak berrezartzeko jaioren Sare 2014. urteko ekainean. Lasarte-Orian 2014ko abenduan aurkeztu eta hasi ziren lanean. Aurreko astean egindako agerraldian herritarrak mobilizatzen deitu zituen larunbatean Baionan eta maiatzaren 6an Gasteizen egingo diren manifestazioetara joateko gonbita luzatuz.

Azkeneko hau apirilaren 8rako zegoen deituta baina Sarek jakitera eman duenez, "Apirilaren 8an ETaren armagabete amaiera ekitaldia izango da. Sare-ren ustez euskal jendartearentzat ekimen oso garrantzitsua da, eta beraz denon begiradak iparraldean egingo direnez, Sare Herritarrak, Gasteizen, larriki gaixo dauden presoaren eskubideen alde, izango den manifestazioa, maiatzaren 6ra atzeratzea erabaki du".

Ixiar Arteaga eta Joxe Mari Agirretxe dira Lasarte-Oriako Sare-n lanean dabiltzan herritarretako bi. Urte hauetan gertutasunetik aritu dira, "herri mailan sarea osatzen giza eskubideen alde".

Udal ordezkari eta alderdiekin harremanetan jartzeaz gain, herriko hainbat eragileren atxikimendua lortu dute. Gertutik jarraitzen ari dira Ibon Fernandez Iradi gaixotasun

larria duen herriko presoaren egoera edota Santi Arrosperen kasua.

Sare momentu honetan zer egiten ari da?

Euskal Herrian eta herriz herri, erakunde publikoekin, herri eragileekin eta pertsona ororekin harremanetan jartzen ari da Sare Giza Eskubideen urraketaren inguruan sentsibilizazioa zabaldu asmoz eta konpromiso batzuk lortzeko helburuarekin.

Esan daiteke gainera, lan honek fruituak eman dituela izan ere, modu anitz batean, sentsibilitate askotako jendearen atxikimendua jasotzen ari gara. Egia da ondoren konpromisoen gauzatzea legokela.

Adibidez?

Lasarte-Oriako udalean mozio bat aurkeztu zuen Sarek, alderdiekin hitz egin zuen aurretik eta lortu zen presoaren eskubideen urraketaz mozioa onartzea alderdiek emendakinak egin zituzten arren.

Atxikimendua garrantzitsua izanda ere, lortu behar dugu gai hauek alderdi, erakunde, agintarien agendaren lehen puntuan egotea aurrera pausuak ikusi ahal izateko. Ez dugu atxikimendu soilean gelditzea nahi. Esan behar da arazoak bere horretan jarraitzen duela ETak jardura armatua utzi zuela sei urte pasa direnean. Gainera euskal gizartean

pausuak ematen ari gara konponbidea, bakeari eta normalizazioari begira eta bide horretan funtsezkoa da presoaren gaia.

Ez da aurrera pausorik egon?

Presoaren gaiari dagokionean, dena estankatuta, geldituta dago. Atxikimendu anitzak eta asko jaso diren arren, urtarrilean Bilbon egin zen manifestazioan sentsibilitate berriak gehitu ziren, biolentzia ezberdinen biktimak egon ziren adibidez, baina azkenean, mugimendu sozialetik haratago, erabaki politikoetan gauzatzea falta da gizartearen eskaria.

Zein da bidean oztipoa?

Gauzatze horretan aitzakia beti Madril eta Parisko gobernuak dira.

Azkenean, gai hauen kompetentziak edo eskumenak, espetxeen alorrekoa, gure herritik kanpo daude eta gugandik urrun hartzen dira erabakiak. Estatu eta gobernu biek, Europa mailan hartzen diren lege arauak sinatu eta alde azaltzen dira beste herrialdeetako gatazkei dagokionean baina hain justu, hemen aplikatu behar direnean lege horiek dena bihurtzen da traba eta oztipo.

Alde horretatik, garbi ikusten dugu aspaldi eskuratuta beharko genukeela espetxeen kompetentzia adibidez.

Azkenean esan bezala, erabakiak urruti hartzen dira

eta urruti dauden agintari horiek, bere horretan jarraitzen dute.

Ez da jarrera aldatetarik egon?

Duela gutxi 'Instituciones Penitenciarias'-en barne zirkular bat publiko egin da non aitortzen den larriki gaixo dauden presoak ez direla kaleratuko hiltzorian egon arte. Eta horrek esan nahi du, minbizia larri bat duen preso batek, Oier Gomez adibidez, edota Ibon esklerosi anizkoitzarekin, egunerokotasunean artatze jarraitu bat behar dutenen egoera berdin zaiola 'Instituciones Penitenciarias' delako erakundeari. Ez dago borondaterik preso hauen eskubideak, oinarrikoak direnak, onartu eta aplikatzeko.

Alderdi politikoek aurrekontuez hitz egiten duten bezala, guk eskatzen duguna da presoaren giza eskubideen urraketaren gaia agenda politikoaren lehen lerroan jartzea eta honen gainean erabakiak har daitezela.

Horretarako gizartearen mobilizazioa beharrezkoa ikusten dugu. Gizarteak egin behar du indarra eta bultzada eman behingoz ordezkari politikoek aitzakiarik izan ez dezaten eta gaiaren inguruan konpromisoak lotu ditzaten.

Mobilizatzeo deia egin berri duzue. Jendartearen bultzadak lortuko du zerbait?

Bai aipatu bezala beharrezkoa da. Sareren jardueraren ekinbidea giza eskubideak, konponbidea eta bakea dira. Gure lan eremua preso, deportatu eta iheslarien eskubideak dira, legeak berak aitortzen duena betetzea lortu behar dugu.

"PRESOEN GAIAREN ESPARRUAN DENA GELDITUTA DAGO, EZ DA MUGIMENDURIK EGON"

"EZ DAGO BORONDATERIK PRESOEN ESKUBIDEAK ONARTZEKO"

Larriki gaixo dauden presoaren kaleratzea eta dagoeneko kondena beteta daukatenen kasuak dira premia. Egoera honetan Ibon Fernandez Iradi herritarra dugu, dagoeneko kondena beteta du eta kalean beharko luke baita bere gaixotasuna dela eta, adituek esanda edota Santi Arrospe, bi aldiz betetzen ari da zigor bat, Frantzian eta Espainian.

Bestalde Rafa Diez dugu, Bateragune prozesuagatik espetxeratua, lan politikoan aritzeagatik kartzelan dagoena. Urrunduta daude herriko preso guztiak. Aipatutakoak dira Giza eskubideen kontrako egoerak eta gure herrian bertan bizi ditugu, urraketa horien adibideak.

Honen aurrean, Gipuzkoako Batzar Nagusietan hartutako ebazpena, 51etik 50 ados jarri ziren egoera hauei irtenbidea ematearen aldeko bozka ematen.

Jendea mobilizatu izan da, aurrerapausorik ez ikustea etsipena ere eragin dezake jendartearen.

Ez gaude sinistuta mobilizazio handi batek ekarriko duenik irtenbidea. Ez gaude horrekin baina bai ikusten dugu beharrezkoa dela mobilizatuta eta saretuta egotea. Ez dago gure esku konponbidea eta gora begiratuta ere, gure agintariei, ez dakigu horrelako gaiak zein punturaino lotzen diren.

Herri honetan senideak, preso gaixoarenak, lagunak... jende pilari ukitzen dio gaiak. Sarek nahi duena da hortik atera eta denontzako eroso eta giza eskubideak babestuko dituen gizarte bat eraikitze horretan, denok parte aktibo garelaren mezua eman. Horrekiko zerbait sentitu, agertzeko, jakin nahia, parte hartzeko... sarea, topagunea nahi dugu izan herrian. Horregatik mobilizazio potolo bat egiten denean, horren parte izan nahi dugu.

Bestalde, egia da, etsipenerako motiboak badaude, sumatzen da estatutik ez dagoela intenziorik pausoak emateko, hainbat gai izan dira albiste azken asteetan. Baina Saretik lortzen ari den atxikimendu anitz horrek eman behar digu indarra eta itzaropena.

Aniztasunean dago gakoa?

Herritarren artean hori lortu badugu, alderdien artean ere lorpenak daude. Adibidez PPre



Ixiar Arteaga eta Jose Mari Agirretxe itxaropentsu agertzen dira Sareren lanak lortutakoekin. TXINTXARRI

abstentzioa lortu zen Donostiako udalean Sara Majarenas eta bere alaba Izarren gerturatzea eskatu zutenean alderdi guztiek. Kasu zehatz bat da baina behintzat hemen Euskal Herrian, sentsibilitate horrek, giza eskubidei dagokiona, aurrera doala erakusten du gure ustez. Eta horrek indarra ematen digu jarraitzeko.

Herritarren inplikazioa eta mobilizazioak ere eragingo du sentsibilizazio hori zabaltzea eta geroz eta zailagoa egitea Euskal Herrian bertan geldirik egotea urraketa ezberdinen aurrean.

Aste honetan argitaratu da Eusko Jaurlaritzak euskal presoak egiteko etxetik 250 km-ra egoteko eskaera egin duela. Ildo beretik, euskal presoan hurbiltzea nahi du Frantziako presondegien ikuskatzaileak. Zein balorazio egiten duzue?

Sarek gai honi dagokionez esaten du presoan eskubidea dela etxetik eta ingurune afektibotik ahalik eta gertuen egotea. Beraz, horren alde, helburu hori lortzeko ematen diren pausoak ongi hartuak dira.

Aipatu dugu, herriko presoan artean, Ibon eta Santiren kasuak ditugu entzutetsuen. Zein egoeratan daude?

Ibonen kasuan, esan bezala, udal ordezkariekin izan ginen, sendagileekin eta eragileekin

ekimen ezberdinak burutu genituen herritarrei irekiak eta sinadura bilketa abiatu genuen ere.

Bi helburu bete ziren gure ustez, gertuko informazioa ematea batetik eta bestetik, horren aurrean atxikipean jaso ziren. Kanpainan bildu ziren sinadura guztiak Ibonen azkeneko epaiketan aurkeztu ziren arren, azkenean erabakia politikoa izan zela ondorioztatzen dugu.

Legeak hor daude, ez dira betetzen eta badakigu erabaki politikoa batek aldatuko lukeela egoera baina erabaki hori momentuz behintzat, ez da iristen. Ibonen kasuan momentu honetan, jarraipena egitea besterik ez dugu. Hiru epaiketa izan ditu eta Europara jotzea geratzen zaio. Adituek esan dute kalean behar duela, eta epailearen azken erabakia barruan geratzen dela izan da. Guk, herritarrok, gaiaren aktibazioa egitea beste tresnarik ez dugu. Santi Arosperen egoeraren aurrean egin da ere atxikimendu bilketa.

Nolako harrera egin dizuete herriko eragileak?

Ezaguna da gaia guztientzat. Badakite zein den orokorrean euskal presoan egoera baina gertutasuna eskertu dutela iruditu zaigu.

Kasu konkretuetara jotzeko gertutasunak asko lagundu du

hor dago saretzeko gaitasuna. Bestela interesarekin hartu gaituztela esan daiteke. Kontutan izan behar da gurean, Lasarte-Orian bertan era guztietako bortxakeria pairatu izan dela.

Lasarte-Orian orain ari da udala azterketa egiten, baina ETAk hil du, torturak izan ditugu Olanoren kasua dugu, urrunketak heriotzak eragin ditu... Eta agian gertatutako guztiagatik, herritarren aldetik urruntze bat egon da.

Momentu egokian gaude ordea, berriro gerturatze bat gauzatzeko herritarren artean. Guk hori bultzatu nahi dugu, sinistu behar dugu, hala delako gainera, norberak bere aletxoa jartzea posible duela konponbidean eta bakerako bidean. Prozesuan izan eta senti gaitzezen denok protagonista. Udala eta herriko eragileengana hurbilduta, hori nahi dugu lortu, gertutasunetik sentsibilizazioa eta eskua luzatzea.

Presente izan behar dugu igarotzen den egun bakoitzean, urraketa bat dagoela. Ezin dugu hori onartu eta eten behar dugu. Guztien esku dago.

Presoek nola bizi dute egoera hau. Sareren lana eta mobilizazioak adibidez?

Beraiek badira kolektibo baten parte eta beren disposizioa erakutsi dute pausuak emateko

bai kolektiboki baita indibidualki ere. Esan dute prest daudela hitz egiteko, harremantzeko, agente aktibo izateko prozesuan. Esan behar da ere, euren pairatzen duten egoeraren larritasunarekin daramate guztia.

Herritarren kasuan, gure ustez, sentitzen dira Lasarte-Orian gertatzen denaren parte. Eskura dute nahi egiteko eta harremanetarako prest agertu dira.

Zeintzuk dira Sareren hurrengo ekintzak herrian?

Aurten Lasarte-Oriako Sarek gehiago zabaldu nahi du eta kultura, hezkuntza zein gizarte arloko eragileekin harremanetan jarri eta atxikimenduak bilduko ditu.

"NORBERAK BERE ALETXOA JAR DEZAKE KONPINBIDEA ETA BAKERAKO BIDEAN"

"PRESOEN BEREN DISPOSIZIOA AZALDU DUTE PAUSUAK EMATEKO ETA PARTE AKTIBO IZATEKO"

Beti ere norbanakoak ahaztu gabe. Herritarrekin hitz egiteko prest gaude.

Zer egin behar da Saren parte hartzeko?

Deia egin nahi diegu herritarrei gurera gerturatzeko. Sare Herritarraren ekimen eta lan ildoaz informatuta egon nahi dutenek, euren emaila emanda, guk informazio guztia puntualki bidaliko diegu.

Bestetik, kolaboratu eta Lasarte-Oriako Saren parte hartzeko, bakoitzak ahal eta nahi duen neurrian, gurekin harremanetan jarrita lasartekosare@gmail.com -era idatzita, bide emango diegu.

Azkenik, Sare-ko bazkide egiteko aukera dagoela esan nahi dugu.

Nola lagundu daiteke? Zein bide erabili dezakete herritarrek?

Sarek 2015eko manifestazioan bildu zuen dirua Guardia Zibilak konfiskatu zuen. 104.000 euro horien faltak zuloa eragin du. Sare herritarrak baliabide ekonomiko horiek behar beharrezkoak ditu bere jarduna gauzatu ahal izanteko.

Sare.eus webgunean daude ekarpen puntualak egiteko bideak.

Dohaintzak transferentzi bidez egin ahal dira Laboral Kutxa ES90 3035 0060 4406 0014 3604 eta La Caixa-ko ES17 2100 6502 4102 0006 2067 kontuetan esaterako. Sareren bazkidetza ere bideratu daiteke hau da, hilabetean diru kopuru bat emateko konpromisoa hartutzen duten herritarren kasua.

Aukera ezberdinak daudenez, guztiaz informazioa emateko, hilabeteko azken ostiraletan herriko Sareko kideok ohiko elkarretaratzea baino lehen, mahai bat jarriko dugu Okendo plazan bazkide egiteko bideak azaldu edota informazioa emateko. Hurrengo hitzordua datorren ostirala, 31, izango da 19:30ean.

Bestalde, autobusa antolatu dugu Bagoaz kolektiboak bihar Baionan 17:00etan antolatu duen mobilizatorako.

Gasteizera joateko ere jarriko da beste autobus bat (maiatzaren 6ra aldatu da larriki gaixo dauden presoan eskubideen aldeko mobilizazioa).

Gainontzean, Aste Santutik aurrera ekingo diegu herriko eragileekin kontaktu berriak egiteari.

"Erreginaren Kopa lehiatzeko moduan gara"

LORENA ZABALA CD SUMENDI TALDEKO IZOTZ HOCKEY JOKALARIA

Sailkapeneko hirugarren postuan da CD Sumendi Emakumezkoen Izotz Hockey Ligan. Lorena Zabala defentsa herritarraren lehenengo urtea da talde gasteiztarrean

Martin Vicioso

Pasioarekin hitz egiten du Lorena Zabalak bere kirolari, izotz hockeyari, buruz. Gasteizko Sumendiko jokalaria da lasarteoriatarra eta denboraldi bikaina egiten ari da, hirugarren postuan baitaude ligan.

CD Sumendin aritzen zara. Nolako izan da talde aldaketa?

Ona. Donostiako Kazkabarran, talde erdia gasteiztarra zen. Haiek ere etorri dira Sumendira eta, beraz, taldearen oinarria lehendik ezagutzen ginen. Ni ere Gasteiz aldera etorri naiz lanera, eta talde aldaketa ondo etorri zait. Gustura nago bai hirian baita taldekideekin ere.

Entrenatzeko eran eta partiduetan aldaketarik nabaritu al duzu?

Bai. Donostian talde askok entrenatzen zuen izotz pistan eta ordutegi txarreana egokitzen zitzaigun guri, gaueko 23:00tatik aurrera. Orain, berriz, 21:00etan hasten gara eta denbora gehiago dugu entrenatu ahal izateko.



Zabala, beheko lerroan bigarrena eskuinetik. LORENA ZABALA

Gorputzak ikaragarri eskertzen du, eta partiduetan hori somatu dela uste dut.

Hirugarren postuan zaudete, partidu onak egiten. Zer nolako balorazioa egiten duzu?

Uste baino hobeto ari gara. Oso eboluzio azkarra izan dugu,

kontuan hartuta lehenengo urteko jokalaria dezente ditugula. Irailean hasi ginen entrenatzen eta urria aldera maila onean jokatzen geunden. Oso partidu onak egin ditugu, eta momentu honetan, sailkapenean hirugarren joatea pozgarria da.

Sailkapenean aurretik dituzuen bi taldeek puntu dezente ko aldea dute. Diferentzia handia dago zuen artean?

Puntuei dagokienez, bai. Majadahondaren eta Barcelonaren kontra ez dugu irabazterik izan, baina itxura ona eman dugu, lehenengo partiduan izan ezik. Taldea guztiz bat egin gabe zegoen orduan. Irabazten ere joan izan gara haien kontra, baina markagailuari buelta ematea lortu izan dute. Ez dugu zorte handirik izan. Gure arteko desberdintasun nagusia prestakuntza da. Nahiz eta jokalaria gazteak dituzten, umetatik daramate jokatzen eta nabari da gu baino entrenamendu gehiago egin dituztela.

Hiru jardunaldiren faltan zaudete. Zer dator ondoren?

Erreginaren Kopa. Lehenengo lauak sailkatuko dira, eta seguru aski bertan izango gara. Majadahondan jokatuko da maiatzaren 20ko asteburuan. Lehenak laugarrenaren aurka jokatuko du eta hirugarrenak bigarrenaren aurka, partidu bakarrera. Gu topera joango gara, aukerak ikusten baititugu. **Gizonezkoen izotz hockey talde batzuek azaldu dute materiala (stickak, patinak...) eskuratzeko dituzten zailtasunak, askotan haiek ordaindu behar dituztela. Zer nolako zailtasunak izaten dituzue?**

Are okerrago gaude. Gure ekipazioak oso garestiak dira. Gama erdi edo baxuko patinak oso garestiak suertatu daitezke.

Horri gehitu babeserako material guztia. Denboraldi amaierarako higitu egiten da, eta aldatu behar izaten dugu. Taldeak ezin du dena kosteatu. Bidai batzuk ordaintzen dizkigute, baina ez denak. Gehienetan, gure kabuz mugitu behar izaten gara, gure autoetan. Hala ere, izotz hockeya maite dugu eta aurrera jarraituko dugu. Kirol honek aurrera egingo badu, diruz gehiago lagundu beharko litzateke. Batez ere, gaztetxoaren kategoriatan.

Euskal selekzioarekin lagunartekoa jokatuko zenuen Catalunyen aurka.

Bai. Lehenengo aldia zen halako partidua emakumezkoek jokatzen zutela, eta oso esperientzia positiboa izan zen. Tamalez, ezin izan genuen norgehiagoka irabazi, baina badakigu beste partidu bat jokatuko dugula eta errebantzarako gogo dugu euskaldunok.

Etorkizunera begira zein asmo dituzu?

Gasteizen jarraitzeko asmoa dut, Sumendin. Taldea asko hobetzen ari da, eta hurrengo urtean topera hasiko gara eta lehenengo postuak borrokatzeko asmoa dugu hasierako jardunaldietatik.

"EBOLUZIO AZKARRA IZAN DUGU, ETA USTE BAINO HOBETO ARI GARA; TALDEAN GAZTE ASKO DUGU"

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
INFANTILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Lengokoak Larunbata. 12:00. Michelin.
ERREGIONALEN 1GO MAILA, KOPA
Lazkao KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Arizti Handi, Lazkao.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE Larunbata. 15:30. Michelin.
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Elgoibar Larunbata. 17:15. Michelin.
KADETEEN OHOREZKO MAILA,
Añorga KKE - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Rezola, Donostia.
EMAKUMEEN LURRALDE MAILA, IGOERA FASEA
Arizmendi KE - Ostadar SKT Igandea. 12:30. Ibarra, Aretxabaleta.

ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Urdaneta H.K. - Reformas Lagunak Ostirala. 19:45. Kirolgunea.
Also - Trumoi Ostirala. 20:45. Kirolgunea.
Txoko - Viña del Mar Larunbata. 10:30. Kirolgunea.
Ilargi - Kebab Taberna Larunbata. 11:30. Kirolgunea.
Indaux - Kattagorri Insausti Larunbata. 12:30. Kirolgunea.
GIPUZKOAKO 1GO MAILA
ISU Lehioak - Egarrri Taberna Ostirala. 20:55. M.Chourraut kiroldegia.
Tellatuberry Zaldibi - Cecilia Kebab Ostadar Ostirala. 22:15. Resti pilotalekua, Zaldibia.
GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA
Inter Fachadas Gipuzkoa - Lasarte Kafe Bar Igandea. 10:00. Mons, Donostia.

SASKIBALOA
ERRENDIMENDUKO JUNIOR NESKAK
Cafes Aitona - Ostadar SKT 'B' Larunbata. 11:00. Bidebieta, Donostia.
Ostadar SKT 'A'- ZAST Orio ZKE Larunbata. 16:00. M.Chourraut kiroldegia.
ERRENDIMENDUKO KADETEAK
Eskoriatza - Ostadar SKT Larunbata. 11:15. Manuel Muñoz kiroldegia, Eskoriatza.
SENIOR EMAKUMEZKOA, 1. PROBINTZIALA
Ostadar SKT - Antigua Luberri Larunbata. 18:00. M.Chourraut kiroldegia.
IGERIKETA
GIPUZKOA SARIA
Buruntzaldea IKTKo igerilari infantil, junior eta absolutuek Gipuzkoako Saria jokatuko dute. Larunbata. Paco Yoldi igerilekua, Donostia.

ERKIDEGO ARTEKO ESPAINIAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo Unai G. Somovilla Erkidego arteko txapelketan lehiatuko da 100 bular eta 100 bizkar frogatan. Larunbata eta igandea. Palma Mallorcakoa, Balear Uharteak.
ERRUGBIA
18 URTE AZPIKOEN EUSKAL LIGA
Gure Etxea Beltzak - Durango RT Larunbata. 10:30. Asti, Zarautz.
14 URTE AZPIKOEN GIPUZKOAKO LIGA
La Rioja - Gure Etxea Beltzak Larunbata. 11:30. Pradoviejo, Logroño.
16 URTE AZPIKOEN EUSKAL LIGA
Universitario de Bilbao - Gure Etxea Beltzak Larunbata. 14:30. Rekalde, Bilbo.

OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz - Bera Bera Larunbata. 16:00. Asti, Zarautz.
12 ETA 10 URTE AZPIKOAK
Federazioko jardunaldiak Igandea. 10:30. Unbe, Eibar.
GIMNASTIKA ERITMIKOA
AMATEUR
LOKEko gimnasta seniorrek Amateur Lehiaketako bigarren fasean hartuko dute parte, zinta eta pilotekin Larunbata. Egun osoan. Ibarra.
TXIRRINDULARITZA
INFANTIL, KADETE ETA JUNIORRAK
Buruntzapiti Txirrindularitza eskolako txirrindulari infantil, kadete eta juniorrak lehiatuko dira Aizarnazabalen, Atarrabian eta Elgoibarren, hurrenez hurren Larunbata eta igandea.



Pasa den urtean Izkiñak eta Txindokik jokatu zuten Txapelketako finala. TXINTXARRI

Lehenengo posturako borroka estutu da

Aita Amarik Kattagorri-Insaustiren aurka eskuratutako garaipenaren ondorioz, hiru taldek lehiatuko dute herriko areto futbol txapelketako lehenengo postua azkeneko momentura arte. Bost jardunaldi besterik ez dira falta fase erregularra amaitzeko

Martin Vicioso

Azken txanpan murgilduta dago herriko areto futbol txapelketa, eta oraindik ez dago garbi zeinek lortuko duen fase erregularreko talde onenaren saria. Kattagorri-Insausti, Trumoi Taberna eta Aita Amari puntu kopuru berarekin dira. Azken hauek, 9-7 hartu zuten menpean liderra asteburuan.

Lehenengo postutik sei puntura, 39rekin, lehenengo urteko txapeldun Izkiña Taberna dago kokatua. Ondoren datoz Kebab Taberna -34rekin-, Urdaneta Hartz Klinika -31rekin- eta Also -23rekin-.

Ilargik du, momentu honetan, 'playoff'-etarako azkeneko txartela. 22 punturekin dira, Indauxekiko 7 puntuko aldearekin.

Reformas Lagunak-ek, Viña del Mar-ek eta Txokok ixten dute sailkapena.

Ibaros Latino taldea lehiaketatik at utzi dute arduradunek, jarraian bi falta larri egiteagatik.

Golegileen taulari dagokionez, aurten ere Kattagorri-Insausti taldeko Ander Pecharroman da lidertzan, orain arte sartutako 46 golei esker. Izkiñako Asier Rubiok 18 egin zituen partidu bakarrean eta, besteak beste, horiei esker kokatu da bigarren postuan 38rekin.

'Playoff' azkarrak

Aurten, lehenengo aldiz, partidu bakarrera jokatu dira final laurden eta finalerdiak. Hortaz, sorpresarako aukera handiagoa edukiko dute hasiera batean favoritoak ez diren taldeek.

Kontsolazio fasea, bestalde, lau taldek jokatu dute. Joan eta itzulikoan jokatu dituzte finalaurrekoak. Finala, ohi

**LEIHOA BEHERAINO
BETE LEIHOA
BEHERAINO BETE
LEIHOA BEHERAINO
BETE LEIHOA**

bezala, final nagusiaren egun berberean egingo dute.

Formatu aldaketaren arrazoi nagusia, arduradunek azaldu dutenez, Mossoren oroimenekoa herriko jaiak iritsi aurretik amaitu ahal izatea da. Horregatik, aste santua tartean dela kontuan izanik, bi astetan laburtu dute txapelketa.

Emaitza txarrak asteburuan

Ez da astebururik oparoena izan herriko areto futbol taldeentzat. Izan ere, maila guztietako ordezkariak galdu dute.

3. Nazional mailan aritzen den Ostadar Antonio Aroztegiak 4-5 galdu zuen Laskorain KE-ren aurka, eta azken hirugarren postuan dira lasarteoriatarak.

Gipuzkoak 1go mailako ISU Lehiok eta Cecilia Kebab Ostadarrek ere porrotak jaso zituzten Hirukideren -9-6- eta Laubururen -2-9- kontra, hurrenez hurren. Kafe Buenetxeako jubenilek ere ezin izan zuten Arantzazuko Ama gainditu.



Maila ona erakutsi zuten Leire eta Ainhoa Martinek Gijonen. BURUNTZALDEA IKT

Euskadiko errekor berria hautsi du Leire Martinek Gijonen

200 metro bizkar frogan lortu du Buruntzaldea IKTko igerilariak 14 urte azpikoen marka berria.

Martin Vicioso

Finalerako atarian geratu zen Leire Martin 200 metro bizkar frogan Espainiako infantil mailako Neguko Txapelketan. Hala ere, bere kategoriako Euskadiko errekorra hautsi zuen Gijonen, eta bere adineko hirugarren denborarik onena egitea lortu zuen.

200 bular, 400 eta 200 estiloak eta 400 libre frogetan ere lehiatu zen Leire emaitza txukunekin. Azkenekoan izan ezik, bere marka pertsonalak hautsi zituen denetan, taldeko zenbait errekor ezarri.

Ainhoa Martinek, berriz, 200 estiloetan hartu zuen parte, eta bere markarik hobereana zazpi segundutan hobetu zuen.

Asteburu honetan Anoetan egingo den 'Gipuzkoa Sarian' lehiatuko dira taldekideekin batera.

Unai Somovilla selekzioarekin

Bestalde, alebin mailako Unai Somovilla Euskadiko selekzioarekin lehiatuko da erkidego arteko Espainiako Txapelketan Palma Mallorcakoan. 100 bizkar eta 100 bular frogetan hartuko du parte.

14 urte azpiko Beltzak, Gipuzkoako txapeldun

Ordizia RT menpean hartu zuten 14 urte azpiko ZRT Beltzak taldekoek, 36-15, Zarauzko Asti zelaian jokatuako partiduan. Matematikoki Gipuzkoako ligako lehenengo postua bermatuta dute, nahiz eta liga amaitzeko bi jardunaldi falta diren oraindik.

Denboraldi bikaina ari da egiten 14 urte azpiko talde lasarteoriatar-zarauztarra. Izan ere, orain arte ligan partidurik ez dute galdu, eta sailkapen txapelketan jaso zuten 2016-2017 denboraldikoko porrot bakarra. Beltzak taldeko ordezkariak nabarmendu dutenez, "baloia mugimendu erabakigarriari eta erakutsitako defentsa bikainari esker" irabazi dute.

Errendimenduko juniorrak taldeko lidertzen bila

Hiru jardunaldiren faltan dira saskibaloiko Ostadar SKT-ko errendimenduko juniorren lehenengo taldekoak ligaxka amaitzeko, eta azken momentura arte borrokatuko dute lehenengo postua.

Pasa den asteburuko emaitzak ez ziren onenak izan, Cafes Aitona taldearen kontra 52-48 galdu baitzuten. Beren aurkari nagusiak, Oiarso, egin beharriko lanak egin eta lidertzan kokatu da. Hala ere, partidu bakarreko alde dago soilik bi taldeen artean, eta ez dirudi tartea asko aldatuko denik.

Azkeneko jardunaldian, Ostadar SKT-k eta Oiarso elkar ikusiko dute Maialen Chourraut kiroldegian.



Eneko Kastoren oroimenezko XX. Krosaren azken lasterketan gaztetxo, guraso eta laguntzaileek hartu zuten parte. TXINTXARRI

Kirolaz gozatzeko, Eneko Castro gogoan

Landaberri Ikastolak Eneko Kastoren oroimenezko 20. Krosa antolatu zuen pasa den igandean. Berrehundik gora neska-mutil aritu ziren Atsobakarreko parkean barrena lasterka, eguraldi paregabea lagun. Kirolaz gozatu zuten, Eneko Kastro gogoan.

Iñigo Gonzalez

Euskara eta kirola hauspotu zuten pasa den igandean Eneko Kastoren oroimenezko XX. Krosan parte hartu zuten lasterkari gaztetxo guztiek, guraso eta lagunak eta baita antolatzaileek ere. Eguraldi paregabea lagun, berrehundik gora neska-mutil aritu ziren lasterka Atsobakarreko parkean inprobisatutako ibilbideetan.

Parte hartzeagatik domina bana eta batek baino gehiagok zozketa bidez sari ederrak (futbol, saskibalo, ur-polo zein errugbi baloiak, kirol-motxilak edota palak, besteak beste) eraman zituen etxera, baina, batez ere, etorkizunean pozarren gogoratuko duten kirol-goiz baten oroitzapen ederra da balioetsua.

Ibilbide alboko kantuan beroketa ariketak egin ondoren, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik seigarrenera bitarteko ikasleek egin zuten korrika, distantzia desberdinetan (100 eta 700 metro artean gutxi

gorabehera). Zenbat eta helduagoak izan ikasleak, orduan eta metro gehiago korritu zituzten. Inguruetan, guraso eta lagunak nekatu gabe animatu zituzten probek iraun bitartean.

Lasterketa guztien dinamika izan zen berdina: ibilbidearen metro gehienak laguntzaileen errotimora burutu zituzten gaztetxoek, eta azken metroak bakarrik. Orduan, abiadura handitu eta sprint betean abiatu ziren helmugaraino.

Emitzei eta postuei buruz hitz egitea posible litzateke kronikatxo honetan, baina ez luke edukiko zentzu handirik, helburu nagusiak euskara eta kirola sustatzea dituen proba batean. Garrantzitsuena, parte

**BERREHUNDIK GORA
NESKA-MUTILEK EGIN
ZUTEN LASTERKA
ATSOBAKARREKO
PARKEAN BARRENA**

hartzea eta kirola eginez gozatzea; kasu horretan, lasterka.

Kirol hitzorduari amaiera emateko, Enekoren ama Margarik hainbat sari banatu zituen parte-hartzaileen artean. Neska-mutil guztien izenak zaku barruan sartu, eta ikusleek ateratzen zituzten txarteltxoak. Ondoren, Ramon Lertxundi irakasleak eman zuen sarituen berri.

Herritarrak Udaberri lasterketan Hamarnaka lasarteoriatar animatu ziren igandean Donostiara joan eta XV. Udaberriko Lasterketan parte hartzeraz. Zehazki, 38 helmugaratu ziren, 10 kilometroko ibilbidea burutu ondoren.

Raul Gomez Margallo izan zen herritar bizkorrena. 13. denbora onena egin zuen, kronometroa 32 minutu eta 55 segundotan geratuta. Jennifer Pizarro izan zen lehen emakumezkoa, 47 minutu eta 59 segundoko denbora egin eta gero. Roberto Trejo burladarrak irabazi zuen proba.



LOKE JUDO

Judoka infantilak Frantzian

LOKE klubeko zazpi judoka infantil aritu ziren joan den asteburuan Saint Cyprien-en (Frantzia) jokatu zen nazioarteko txapelketan parte hartzen. Mundu osoko 600 gaztetxo elkartu ziren hitzordu horretan.

Oier Guirado, Martin Sebastian, Lucas Morales, Julen Fernandez, Santi Mezzena eta Ekhi eta Oier Bocos izan ziren judoka lasarteoriatarak.

Astehenera arte eman ahalko da izena Squash txapelketan

Apirilaren 3an hasiko da XXIX. Squash Txapelketa sozialean. Lasarte-Oriako Kirolen Udala Zerbitzuak antolatutako lehiaketa hau ekaina arte luzatuko dela jakinarazi dute antolatzaileek. Parte hartzeko asmoa dutenek hilaren 27ra arte izango dute epea Maialen Chourraut kiroldegiko kafetegian izena emateko. Bazkideentzat 10 euroko prezioa izango du.

Jardunaldi borobila erregional mailako futbol taldeentzat

Ostadar SKTren Emakumezkoen Lurralde Mailako taldea ederki ari da Euskal Ligara igotzeko fasean. Joan den larunbatean 2-1 garaitu zuen Touring; Saiok eta Ainarak sartu zituzten golak. Lau jardunaldiren ostean, sei puntu bildu eta 3. tokian dira.

Gizonezkoen bi taldeek ere irabazi egin zuten asteburuan. Ohorezko Erregionalak maila mantentzeko borrokari eusten dio, Beti Gazteri 1-2 irabazita. Arkaitz Sanchezek sartu zituen bi golak. Igo erregional mailako taldea, berriz, Kopan ari da lehian, eta Danenari 3-1 irabazi eta gero, multzoko bigarren postua eskuratu du momentuz. 14 puntu dituzte urdin-beltzek.

Lasarte-Oriako 7. BTT proban apuntatzeko epea zabalik

Apirilaren 2an, igandearekin jokatu da Lasarte-Oriako 7. BTT proba. Izena emateko bttlasarteoria.com web orrialdean sartu behar da. Martxoaren 30a baino lehen apuntatzen direnek 15 euro ordaindu beharko dituzte (txirringarritza lizentzia indarrean ez dutenek, hiru euro gehiago). Apirilaren 1a izango da izena emateko azken eguna.

Promozioko binakako finalera sailkatu dira Arteaga II eta Erasun

Sei tanto besterik ez zituzten behar Arteaga II.ak eta Erasuneko Promozioko binakako txapelketako finalera sailkatzeko. Sei bakarrik ez, 22 egitea lortu zuten: nagusitasunez gailendu zen bikote gipuzkoarra, Laso eta Iturriagaren aurka, Oñatin: 22-13 irabazi zuten.

Peña eta Salaverri (osatzen bada) izango dituzte arerio apirilaren batean Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu den final handian. Atzelari errioxar gaztea min hartuta dago, eta Ibai Zabala bizkaitarrak egin zuen bikote Peñarekin, Errandonea eta Martijaren aurka. Aise nagusitu ziren lehenengoak, 22-10.



Elektrizitatea

GREMIOEN GIDA 2017

Arreta profesionalena, zugandik gertu

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)



Igeltseritza



Arkitektura eta Barne-Diseinua

Josue
Igeltseritza SL

606 37 21 05
josueigeltseritza@euskalnet.net

Atallu pol. 28
20170 USURBIL

Igeltseritza orokorra
 Estalkien berriztatzeak
 Fatxaden estaldurak
 Barruko berrikuntzak
 Gremioen koordinaketa

borobil
arkitektura

Kale Nagusia 27-29 behea
20160 Lasarte-Oria
943 50 78 51 - 670 513 751
info@borobilarkitektura.eus
www.borobilarkitektura.eus

- ITE
- BARNE-DISEINUA
- ENERGIA ERAGINKORTASUN ZIURTAGIARIA
- PROIEKTUAK
- LIZENTZIAK
- "HOME STATING"

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK



Iturgintza



Kristaldegi eta Leihoak

ILLARRETA
ITURGINTZA

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52 -
Taillerra: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

DEL ORIA
KRISTALDEGIA

Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522

20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

ISU
25 urtez zuekin!


Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

Hurrengo gida apirilaren 28an.
Parte hartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66

ZORION AGURRAK



Artai
Zorionak Artai 9 urte potolo betetzeagatik!! Ondo pasa eguna eta muxu pila pila aita eta amaren partez!!



Unai
Zorionak maitia zure hamargarren urtebetetzean. Muxu handiak familia guztiaren partez! Ondo pasa!



Noelia
Zorionak Nuelita! Txokomarrubizko 27 muxu eta besarkada goxo etxeko "txikiari".



Amaia
Zorionak politta! Egun politta pasa dezazula eta 27 muxu haundi lagunaren partez!



Nora
Zorionak Nora!! Ondo ondo pasa zure egunean eta gorde goxoki batzuk amatxoren lagunentzat ere!!! Muxuak!

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

101. SALDU

Herrri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazioa eskatzeko deitu 663 515 265

102. ERRENTAN EMAN

Garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalen. Informazio gehiagorako. 686 674 552

2. LAN ESKAINTZAK

201. ESKAINTZAK

Emakume bat zaintzeko interno moduan lan egingo duen pertsona bilatzen ari gara. 688 645 791

202. ESKAERA

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, orduka edo interna bezala lana

egiteko prest. 698 220 626

Orduka lan egin nahi nuke nagusien zaintzan edota garbiketa lanetan. 671 763 558

Orduka lan egingo nuke egun zein gauez nagusien zaintzan edota garbiketetan. 634 278 198

4. IRAKASKUNTZA

402. EMAN

Ingelesko eskola partikularrak ematen dira. Maila eta adin guztiei zuzenduta 693 601 222

Eskola laguntza eskaintzen da, lehen hezkuntzako umeentzat partikularrak. Magisteritza ikasita eta partikularretan esperientzia dut. 660 787 502

JAIOTAKOAK

Tahadija Et Tahery Kadouri. Martxoaren 15ean.
Iñaki Imanol Iruretagoiena Novo. Martxoaren 10ean.

HILDAKOAK

Pablo Fernandez Ceña. Martxoaren 20an, 79 urte.
Amalia Gonzalez Jimenez. Martxoaren 20an, 81 urte.
Mariana Oyarbide Olavide. Martxoaren 20an, 93 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 24 ACHA-ORBEA

Larunbata, 25 URBISTONDO

Igandea, 26 URBISTONDO

Astelehena, 27 GANDARIAS-URIBE

Asteartea, 28 ORUE

Asteazkena, 29 DE MIGUEL

Osteguna, 30 LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

OHARRAK

Irakurle Txokoa-ren zozketak
Irakurle Txokoa diruz laguntzeko errifak saldu dituzte hilabeteotan eta zozketa eginda, 602 zenbakia izan da saria eskuratu duena.

Jaietan Blai

San Pedro jaiak ekainaren 28tik uztailaren 1era ospatuko dira. Udalak proposamenak egiteko aukera zabaldu du; "Zein ekintza berri antolatuko zenuke? Zein musika talde ikusi nahiko zenuke herrian? Zure elkarte edo lagun koadrillarekin zerbait antolatzeko prest? Animatu eta parte hartu!". Eskuorria bete eta udal eraikinetako parte hartze postontzietan utzi behar da martxoaren 31 baino lehen.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184

KIROLDEGIA: 943 376 182

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181

GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179

KIUB: 943 361 605

UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621

MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960

DYA: 943 464 622

GURUTZE GORRIA: 943 363 953

UDALTZAINAK: 943 362 442

ERTZAINAK: 943 288 888

SOS DEIAK: 112

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Maidar Azurmendi,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso.

Publizitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidar Seguroia,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi.

Informatikoa

Xabier Amadoz.

Administrataria

Arkaitz Urdapilleta.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALAK

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saillburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA Dantza

"Hormek diote on stage" dantza ikuskizunaren estreinaldia eskainiko du Haatik dantza konpainiak. DSS16rako gauzatutako egitasmoa da. Sarrera 10 euro.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Jaia

Semblante Andaluz elkartearen 25. urteurrenako ospakizunaren aurrekari moduan, Txotx herrikoia izango da gaur. Sagardotegi menuaren prestaketa ikusi ahal izango da eta jarraian, dastatu ahalko da.

Semblante Andaluz, 18:30etik.

ANDOAIN Kontzertua

Andoingo udal musika bandak 20 urte betetzen dituela eta, emanaldi berezia eskainiko du.

Bastero, 21:30etan.

LARUNBATA 25

LASARTE-ORIA Dantza

'Itzal galdua' dantza ikuskizuna eskainiko du Gero Axular dantza taldeak. Sarrera 5,50 euro.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

'KTG Sutan' jaialdia antolatuta duete Kuadrillategi egitasmoa gazteek. Skakeo eta Herenegun taldeen kontzertuek gozatzeko aukera izango da. Sarrera ikasle eta langabetuak 1 euro, helduak 3 euro.

Loidibarren, 20:00etatik.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA Ikastaroa

Familientzako antzerki tailerra Kukukak antolatuta Antzerkiaren Nazioarteko eguna dela eta. Parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute 655 847 375 telefonora deituta.

Sasoetako gimnasioa, 10:30etik.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Danak Kidek antolatuta, kamara doinuak entzun ahal izango dira



LASARTE-ORIA Dantza

Gero Axular dantza taldearen 'Itzal galdua' ikuskizunaren azken emanaldia. Itzalgabekoa Otsagikoa da. Ikasketak amaitutakoan, Nafarroa defendatzera itzultako gaztea da. Nork eskatuko dio berari itzala?

Manuel Lekuona, 17:00etan

Atsobakar egoitzan Trio Primavera taldearen esku.

Atsobakar Egoitza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Haur Antzerkia

'Amona Joxeparen istorioak' haur antzezkiak gozatzeko aukera izango da Kukukak prestatutako 2. Antzerki topaketetan.

Sasoetako gimnasioa, 12:30etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Ainhoa Alberdiren 'Zapatak' bakarriketa saioa Kukuren 2. Antzerki topaketen baitan.

Ttakunenea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Txikiren 'Barrez blai' umorezko bakarriketa Kukukaren 2. Antzerki topaketen baitan.

Furia Beltza, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

'Inklusioaz formatu txikian' Atea Teatroaren lana Kukukaren 2. Antzerki topaketen baitan.

Abend, 20:00etan.

ANDOAIN Bertso saioa

Sahararen aldeko bertso saioa. Bertsoan ariko dira Alaia Martin, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Julio Soto, Unai Muñoa eta Oihana Iguaran, gai jartzaile lanetan Jon Beloki. Sarrera 6 euro.

Bastero, 12:00etan.

URNIETA Pailazoak

'Pupu eta Lore haizearen herrira' ikuskizuna Imanol Urbietaren kantuak oinarri. Sarrerak 6 euro.

Sarobe, 16:00etan eta 18:00etan.

ASTEARTEA 28

HERNANI Kontzertua

Kubatar emakumeen ekarpena Kubako musika eta herrialdearen garapenean hitzaldia eskainiko da eta ondoren kontzertua.

Biteri, 19:00etan.

ASTEAZKENA 29

HERNANI Ipuin kontalaria

Maite Frankorekin ipuinaren ordua. Lehenengo 3 eta 4 urte bitartekoentzat saioa izango da eta jarraian 5-7 urte artekoentzat.

Biteri, 17:30ean.

OSTEGUNA 30

LASARTE-ORIA Kontzertua

Tobera Musika Eskolaren emanaldia. Tobera Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloa biltzen dituen Musika Eskola da eta trukea gauzatuko dute herriko musika eskolarekin.

Manuel Lekuona, 18:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Batman lego 3D
Igandea: 17:00.

El guardian invisible
Igandea: 17:00.

ANDOAIN

BASTERO

Lego Batman (euskaraz)
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

Manual de un tacaño
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.

Astelehena: 19:30, 22:00.

URNIETA

LEKAI

Angry Birds

Igandea: 16:00.

USURBIL

URBIL

El Bar

Ostirala: 15:50, 18:30, 20:40, 22:45, 00:45.
Larunbata: 15:50, 18:30, 20:40, 22:45, 00:45.
Igandea: 15:50, 18:30, 20:40, 22:45.

El guardián invisible

Ostirala: 15:45, 19:30, 22:20, 00:55.
Larunbata: 15:45, 19:30, 22:20, 00:55.

Igandea: 15:45, 19:30, 22:20.

Es por tu bien

Ostirala: 16:00, 18:20, 20:20, 22:55, 00:55.
Larunbata: 18:20, 20:20, 22:55, 00:55.
Igandea: 18:20, 20:20, 22:55.

Kong: La isla calavera

Ostirala: 16:00, 18:00, 20:30, 22:20, 00:45.
Larunbata: 16:00, 18:00, 20:30, 22:20, 00:45.
Igandea: 16:00, 18:00, 20:30, 22:20.

La Bella y la bestia

Ostirala: 16:15 (3D), 15:45, 17:00, 18:00, 18:30, 19:40, 20:40, 21:30, 23:30, 00:15.

Larunbata: 16:15 (3D), 15:45, 17:00,

18:00, 18:30, 19:40, 20:40, 21:30, 23:30, 00:15.
Igandea: 16:15 (3D), 15:45, 17:00, 18:00, 18:30, 19:40, 20:40, 21:30.

Logan

Ostirala: 19:00, 22:05, 00:50.
Larunbata: 19:00, 22:05, 00:50.
Igandea: 19:00, 22:05.

Ghost in the shell

Ostirala: 19:00.
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.

Redención

Ostirala: 16:30, 21:45, 00:15.
Larunbata: 16:30, 21:45, 00:15.
Igandea: 16:30, 21:45.



LABURPENA

Batman lego 3D

Zuz.: Chris McKay. **Herr.:** AEB (2017). **Gidoia:** Seth Grahame-Smith, Chris McKenna, Erik Sommers, Jared Stern, John Whittington. **Iraupena:** 104 minutu.

Lego-en itzulera

Gotham hirian aldetak gertatzen ari dira. Jokerrak hiria konkistatzea ekidin nahi badu, Batmanek gaiztoari bakarrik aurre egiteko ideia alde batera utzi eta beste batzuren laguntza beharrezkoa duela sinistu beharko du, modu horretan emaitza ona lortu nahi badu behintzat.

Batmani kostatuko zaio besteen laguntza behar duela onartzea eta protagonista harro xamar bat erakusten du filmak.

2014. urtean arrakasta handia izan zuen 'The Lego Movie' lehenengo filmak. Lego

mundua animazioara ekartzeak arrakasta izan zuen, animaziozko film onenaren atalean izendapena jaso zuen Oscar sari entzutetsuetan edota Urrezko Globoetan. Bigarren atal hau, spin-off edo lehenengo filmaren jarraipena da. Honetan ordea, Batman da protagonista baina berarekin batera hamaika pertsonaia azaltzen dira Jokerrari aurre egiteko.

3D teknologiari ikusi ahalko da Manuel Lekuonan publiko guztiei zuzendutako pelikula. Sarrera 4,80 eurokoa izango da.

KOMIKIA



Udaleku eta kanpaldiak 2017 Aukera paregabea!

Izen-emateak:

Martxoaren 27tik 31ra: Ttakuneko bazkideak,
Gazteklubeko zein Kuadrillategiko erabiltzaileak
eta iaz ibilitakoak.

Apirilaren 3tik aurrera guztiontzat zabalik!



ZABALETA BERRI BIZIGUNEA

TERRAZAK ETXEBIZITZA
GUZTIETAN,
100m²taraino

BISTA EZIN HOBEAK
SANTA BARBARA ALDERA

PERTSONALIZAZIO
GUZTIAREKIN

2 LOGELA +12m²ko terraza
199.000 €tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
215.500 €tik + BEZ



ADI !!
Azken hilabetea!
ETXEBIZITZA LIBREAK
HITZARTUTAKO PREZIOAN,
Donostitik 8 minutura

DENA BARNE



GARAJEA



ARMAIRUAK



SUKALDEA



PERTSONALIZAZIOA

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA
Apirilak 11



943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

Infografia hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan